



## Elgoibar Ikastola, Andoaingo Manuel Larramendi ikastola eta Tolosaldea BHI izan dira Kosmodisea 2008-2009ko Fono Planetan nabarmendu diren lanen egileak.

Elgoibar Ikastolako hainbat talderen lanak Kosmodiseako Fono Planetan parte hartu duten lanen artean nabarmendu dira. Zehazki, ikastetxe horretako ordezkariak Lehen Hezkuntza-Neo Sistemako etapetan (1., 2. eta 3. maila), Lehen Hezkuntza-Fisio Sistema (4., 5., eta 6. maila) eta DBH-Glos Sistemaren posizio onenak lortu dituzte. Bestalde, Andoaingo Manuel Larramendi Ikastolako lan bat izan da Batxilergoko gailenena eta Tolosaldea BHI zentroko lan batek Zikloetan balorazio altuena lortu du.

Elgoibar Ikastolako talde batek Kosmodiseako Fono Planetako lanik onena aurkeztu du, Lehen Hezkuntza-Neo Sistema etapan (1., 2. eta 3. maila). Lurreko arma guztiak jaso, birziklatu eta munduko hainbat tokitan aprobeztatzeko ideiarekin inguruko proposamena izan da.

### Lana entzun | Elkarrizketa irakurri

Etaparen horretan bertan, The English School eta Axular Lizeoko (Donostia) bi taldek, lan nabarmenen artean kokatu zituzten beren lanak.

Elgoibar Ikastolako taldea izan da baita ere Lehen Hezkuntza-Fisio Sistemaren (4., 5. eta 6. maila) puntuaziorik altuena lortu duena. Etaparen horretan, animalien bizitzaren hobetzeko dauden aukera desberdinen inguruko soinu-lana egin behar zuten taldeek. Aukera horien artean, ehiza kontrolatzea, urpeko baliabideak babestea edo maskotak era arduratsuan zaintzea zeuden.

### Lana entzun | Elkarrizketa irakurri

Fase horretan, Donostiako Ikasbide Ikastolak aurkeztu zuen lan onena.

DBH kategorian, Elgoibar Ikastolako talde bat izan da lehen postua lortu duena hiriaren etorkizunaren eta gaur egun sortzen ari diren hirigune berrien inguruko gogoetaren soinu-grabazioarekin.

### Lana entzun | Elkarrizketa irakurri

Irungo San Vicente de Paul ikastetxeko talde batek ere, etapa horretan partaidei asko gustatu zaie lana aurkeztuzuen.

Batxilergoan, talde nabarmenena, Manuel Larramendi Ikastolako izan da. Oztoporik eta indarkeriarik ez duen eta inguruarekin armonian bizi den ametsetako hiria urruneko planeta batean nolako izango litzatekeen pentsarazten digun soinu-lan interesgarria egin zuen talde honek.

### Lana entzun | Elkarrizketa irakurri

Modalitate honetan bereziki aintzat hartu diren beste lan batzuk Manuel Larramendi Ikastolako beste talde batek eta Urola I Azkoitia-Azpeitia BHIko talde batek egindakoak dira.

Azkenik, Zikloetan, Tolosaldea BHIko talde bat izan da lehen postua lortu duena, edozein lekutako hizkuntza edo hizkera itzuliko lukeen lepokoa sortzeko aukeraz hausnarketa egiten duen soinu-grabazio baten bidez.

Lana entzun | Elkarrizketa irakurri

Maila horretan, Tolosaldea BHI eta Donostiako Nazaret Zentroak ere balorazio altua lortu dute.

Kosmodisea 2008-2009 edizioan parte hartzeko aukera oraindik irekia dago. Informazio guztia honako web-orrian aurki daiteke: [www.kosmodisea.net](http://www.kosmodisea.net)

*Lehen Hezkuntza Neo Sistemako lana entzun*

*Lehen Hezkuntza Fisio Sistemako lana entzun*

*DBHko lana entzun*

*Batxilergoko lana entzun*

*Zikloetako lana entzun*

---

*Alfonso Guillori elkarrizketa (Elgoibar Ikastola)*

*Mari Kruz Intxaustiri elkarrizketa (Elgoibar Ikastola)*

*Amy Cortabitarteri elkarrizketa (Elgoibar Ikastola)*

*Gorka Matuteri elkarrizketa (Manuel Larramendi Ikastola)*

*Elena Aizpuruari elkarrizketa (Tolosaldea BHI)*